

Eginaren nekea

Euskaldunon Egunkaria, 1992-06-23: 2.

Gure artean jende asko da nekatzen hasi dena. Giroa bizi dugu euskaldunok neketsua. Ustela, hobe. Jatorriz nondik datorren ezagutzea ez da gauza sinplea. Sinple bakarrak. Aberria. Hizkuntza eta guzti, ostutzen uzten ari garenok, gerauek gara! Hilek ere badute zerikusi ilunik hemen. Hilak eta eranak gure herriaren konzientzia larri astindu dute. Erana baino astunagorik ez da konzientzian kabitzen. Eta hau gogorra bada ere, ez da itomen hau sortzen ari zaigun kutsua gorpu hauena bakarra; gure artean elkar ulertzeko erabiltzen genuen hitza usteltzen hasi zitzaigunean ez ginen konturatu. Konturatu ordez, errazena!, susmagarri egiten hasi ginen elkarrekiko. Aldapa beherako bide zabal irristagarria! Batzuk goitik, besteak behetik, denak gainezka... aldresbesko sermoiak eta aginduak botatzen, bakoitzak bere pulpitutik. Eta giro makur honetan gaudela... herenegun, irakurri nuen EGUNKARIAn, halako, urlia, euskara lanetan nekatu egin dela. Honek, mutil puska honek, badu behintzat nondik nekatu! Egin duen guztiaren gainean dago gizon hori nekaturik... Nekatu, ez da alferra nekatzen! Alferra beti berean ikusiko duzu, modu batera edo bestera, baina egin beharraren gainean etzanda, oso adi balego legez, baina arima lotan. Herriak irabazi ditu nolabait honelako zerbitzarien meritua. Baina badira, eta asko hauek ere, Dioniso Amundarain bezala, bere lana gogoz egin eta gero gaurko giro jauzi honetan nekatua eta desenkantatua dagoela esaten duenik. Gure herriko gizon nekatu hauek, ernatuko dira berriz ere, beharra eskuhar uzten zaioten bezain laster. Alferrak dira gure heriotzarako lozorroan jarraituko dutenak.